

**POST-TRUTH - EGIAREN ONDOKOA - POSVERDAD**

Hitz hau 2016. urteko hitza bezala izendatu zuen Oxfordeko hiztegiak. Izen honek duen edukia zuzen ulertzeko adierazlea eta adierazia kontuan hartu behar dira. Ingelesezen izenburuko forma du. Gazteleraz kazetariak horrela itzuli zuten. Eta euskaraz nik horko itzulpena egiten dut.

Hitz honek adierazi nahi duena, egiaren zatitxo bat da, alde batera utzita egia den ekintzaren inguruan gertatu diren ingurune guztiak. Egiaren ondoko garaia deitzen hasi dira kazetari asko, Trump jaunak EEBBetako buruzagitza hartu duenetik. Nik 'egiaren ondokoa' itzuli dut, egia badagoelako ematen den berrian, baina ez egia osoa adierazteko. Egiak ezagutarazten digu gertakizun bat, edo errealitate bat, baina ondokoak ez badira ematen, gertakizun baten erdia edo laurdena kontaktzen zaigu, ez egia osoa. Eta murrizketa hori kontaktzaileak egiten du, ez gertakizunak berak, edo errealitateak. Horregatik emaitza hori ez da egiaren ondorengoa, egiaren ondokoa baino, kontalariak ezabatu duelako berari interesatzen zaion helbururako errealitate horren zati bat: Gehienetan irakurlea bere bidera eramateko, ez egia bere osotasunean ezagutzeko.

Alex Grijelmo jauna aditua da kazetaritzan, bai egin zituen ikasketengatik eta bai jaso dituen sariengatik. Eta bai azken ur-

teotan 'El País' enpresan duen arduragatik: 'Prisa Noticias' erakundean, nazio arteko garapenerako duen sailaren zuzendaria da. Hitz honen adierazia Alex Grijelmo jaunak 'El País' egunkarian nahikoa argi zehaztu zuen. Bere hitzak aitatu behar ditut: 'Ya no importa la verdad demostrable, ni la noticia cierta, sino la activación de emociones y reacciones inmediatas, para lo cual se aprovecha la abundancia de canales que carecen de verificadores. Como escribió en un magnífico artículo la directora de 'The Guardian', Katharine Viner, “la nueva medida de valor para demasiados medios es la viralidad, en vez de la verdad o la calidad”. El objetivo de muchos de ellos consiste en satisfacer los impulsos más primarios de los lectores aun a costa de abdicar de los principios éticos'. Eta Grijelmo jaunak honela amaitzen du bere artikulua: 'El engaño siempre existió, sí, pero antes todos decían luchar contra él. Ahora, por el contrario, se empieza a cultivar como una buena técnica profesional el revoltijo de trampas de lenguaje basadas en el sensacionalismo, los sobrentendidos, la insinuación, la alusión, la presuposición, los eufemismo. Y si se trata de definir ese paquete, lo de “posverdad” suena realmente a broma. Porque puede que estemos llamando “era de la posverdad” a la “era de la manipulación'. (El País, Ideas, 24-12-2016).

Hitz hau 'post-truth' estatu batuar teatrogile batek asmatu zuen 1992an. Steve Tesich drama idazleak, eta asmatu zuen 'para denunciar que el concepto verdad carece de importancia o es irrelevante [...] sobre el escándalo Irangate en la venta de armas, con Ronald Reagan en la Casa Blanca. En abril de 2010 resurgió el término en un artículo de David Roberts sobre la posverdad referido a los políticos que negaban el cambio climático'. (Gabriel M<sup>a</sup> Otalora, Deia, 21-02-2017) Hor bertan gogoratzten du egiaren ordeza, guzurra adierazi nahi duela. 'El escritor Ricardo Menéndez Salmón define con precisión: “Lograr que el lenguaje diga lo que la realidad niega”. Gertakizunak kontatzerakoan, sentipenak ere sartzen dira.

Oxford-eko hiztegiak honelako adierazi bat ematen dio hitz horri: gertakizun objetibo batek baino eragin gehiago dute hiritarren iritzietan, hauen emozio, siniskera pertsonalak, eta inguruan dauden eraskinak'. J. Ramón Blazquez, komunikazio aholkulariak hori jaso eta beste hau idazten du: 'No importa el fracaso del sistema tradicional de libertades. El deterioro de la democracia, sus corruptelas, su ineficacia y su lejanía de la sociedad no tiene ninguna responsabilidad. ¡No, señor! Las emociones son las malhechoras, porque de ellas deviene la irracionalidad. Esta identificación esconde el blanqueo de la inacabable historia de fracasos del modelo tradicional de representación que apenas se ha reformado en cincuenta años a pesar de los cambios que han acontecido en la humanidad, ni siquiera cuando llegó la crisis económica sobre cuyos escombros malviven millones de personas'. [...] Me desagrade intelectualmente la definición del problema que plantea la posverdad como un choque entre verdad y emociones, entre conocimiento e ignorancia, entre lo objetivo y lo subjetivo, una primacía castesiana. No existe tal oposición. Lo que hay es un claro deterioro del crédito político y otros liderazgos en la opinión pública. Y no por enfado o pataleo infantil, sino por indispensable necesidad de limpieza mental en este momento de la historia. A esta respuesta, más o menos desorganizada, le llaman ahora, despectivamente populismo'. [...] Que las sociedades estén enfadadas (y decimos que se enfadan con razón) no implica que hayan renunciado a sus criterios y se muevan solo por sentimientos. La indignación es un estado tanto racional como emocional, como consecuencia del análisis de los hechos acaecidos y valoración'. [...] La inteligencia emocional tiene más vigencia que nunca. La gente no ha enloquecido. Ha sido la política, y la economía, y en general los líderes, los que nos han llevado a esta situación'. (Deia, 5-01-2017).

Zoritzarrez gertakizun objetiboak estaltzeko ohitura ez dago bakarrik 'lehenengo munduan'. Hirugarren munduan ere adie-

razten dute kazetari batzuek. 'Mundo negro' aldizkarian Josean Villalabeitiak lantxo baten honelako esperientzia bat kontatzen du. Izenburua 'La tentadora posverdad', eta amaieran hau idazten du: "Esta chabola está demasiado limpia; no nos interesa; necesitamos algo mucho más pobre confesaba decepcionado el fotógrafo de una ONG a un religioso africano que lo acompañaba por un poblado. "Si el precio de vuestro dinero es tratarlos como pretendes, preferimos que no nos ayudéis" le respondió" mi hermano con suprema dignidad'. (Mundo negro, 09-2017, 66 orrial.). Gainera idazle honi Kapuscinski-ren lanak zalantza handiak sortu dizkio, susmoa hartu duelako kazetari ezagun horrek, bere lanetan ez ote duen gertakizunen ingurugiroa txukundu. Hau jakin arte ez zuela zalantza hori aitortzen du hortxe bertan.

Gatozan hurbilago 'egiaren ondoko' bidea jarraitzen duten beste lantxo batzuk aitatzeko. 'El Diario Vasco' egunkarian jaun batek 2017-01-28an lantxo bat idatzi zuen 'La democracia cultural'. Gehienetan hemen ataritzen diren lanak 'El Correo Español' egunkarian agertzen dira, jabea 'Vocento' taldea delako. Lantxoaren muina Miguel Zugaza jaunaren izendapena Bilboko Arte Ederretako Museoaren zuzendaritzarako da. Soziologo bezala aurkezten du bere burua idazleak, José Luis Gómez jaunak. 'Zugaza, sin cuestionar su valía, regresa a la dirección del Museo de Bellas Artes de Bilbao sin que medie concurso'. Ez du ezer esaten Zugaza jaunaren ibilbideari buruz, eta hori ez dakien irakurleak pentsa dezake, Arte Ederretan zerikusirik ez daukan arrazoiren batengatik eman diotela lan hori. Munduko sei museo onenetako baten zuzendari izan da. Ez da nahikoa idaztea 'sin cuestionar su valía' zalantzan jartzen duelako bere egokitasuna lan horretarako. Burua duen edozeinek ezin du pentsatu 'El Prado' museoaren zuzendari izendatu zutela Durangon jaio zelako. Bazuen prestakuntza Arte Ederretan eta administrari bezala. Hainbat urtetan egon da hor eta hainbat egitasmo onartu dizkio Madrileko go-

bernuaren administrazioak. Gainera museo honek sotoetan dituen hainbat margo berriztatzea burutu du eta erakusketa desberdinak antolatu.

Konparaketa bat egin daiteke Zugazaren lanpostua Bilbon ulertzeko. Nobel saria irabazten duen bat Espainiako unibertsitate batera ekarri nahi balukete irakasle bezala, lehiaketa irekira joan beharko luke? Baina egiaren alderdi guztiak jarri behar dira, bestela gertakizun bat herren gelditzen da. Eta ingurugiroa ezagutzen ez duenak, irentsi dezake egiaren atal bat dena, egia osoaren orde, inguruko egiak alde batera utzita.

Beste adibideren batzuk aipatu behar ditut. Joseba Arregi, Andoingo seme ezagunak sarri samar idazten du egunkari berdinean. 'Egiaren ondokoa' den bidea hartzen duenak lehenengo urrats hau ematen du: gaiaren edo gertakizunaren txingotea edo txingote antzeko bat egiten du. Hori egiteko aurretik erabakia hartuta du, eta idatzi edo esan aurretik hartu duen erabakia egia dela adierazten saiatzen da. Horretarako logikak ontzat ematen ez duen sofisma erabiltzen du. Eta batzuetan guzur biribilak ere bai. Baina antzinako printzipioa da: 'contra factum no valet argumentum'. Arregik 'Preguntas incorrectas' idatzi zuen 'El Diario Vasco' egunkarian 2017-12-16an. Gaia 'Ekonomi kontzertua' eta Euskadik ordaindu behar dion dirua estatuari. Arregi ez zen egon kontzertua izenpetu zenean, eta inork ere ez du jartzen jaun hau gai honetan adituen artean. Baina orojakilearena egiten du. Negoziatzen Pedro Luis Uriarte ibili zen eta gero liburu mardul bat idatzi du interneten dagoena, hitzaldiak hemen eta Madrilan, eta eskatzen dioten tokietan, azalpen garbiak eta argiak ematen ditu entzun eta jakin nahi duenarentzat. Komunikazio sarean idatzi du beste lan bat gai honi buruz. Tokia hau da: 'comunidaddelconcierto.com'. Arregik ez du irakurri eta ez du ematen irakurriko duenik ere, baina kontzertuaren kontra idazten du. 'La solidaridad se ejerce en España por los fondos estableci-

dos en la LOFCA. Como Euskadi y Navarra no participan en la LOFCA no aportan nada a la solidaridad. Ni un céntimo'. Hau guzur biribila da. Gero Euskadiko datu onak aipatzen dituzten egunkariak honela laburbiltzen ditu: 'están diariamente llenos de bravuconadas al estilo de "somos los mejores en", 'estamos por encima de la media en' [...] y nos enorgullecimos de haber conseguido que las tres estaciones del AVE sean soterradas, mientras Extremadura no cuenta ni con un kilómetro de red ferroviaria electrificada'. Antza denez Euskadik dauka hango hutsen errua. Madrileko gobernuak ez dauka zerikusirik holako arazoekin antza. Eta lapurretekin ere ez. Jaun honek Frankfurten egin zituen unibertsitate ikasketak baina hemen adierazten duenez, ez ditu bereizten estatistikek ematen dituzten datoak eta taberna baten norbaitek botatzen dituen 'bravuconadas' horiek. Euskadin agintaritza dutenak kontuz mintzatzen dira. Ez dakigu han ikasi ete zituen horrelako gauzak.

Lan hau adibide bikaina da 'egiaren ondokoa' zer eta nolakoa den ikusteko eta ulertzeko. Beste aipamen asko daude hori egiaztatzen dutenak. Eta jakina, Arregi jaunak ez du begiratu P. Luis Uriarteren azalpen bat bera ere. Bere tesia guzurrean oinarrituta, egia da. Beste adibide bat. 'El Correo' egunkarian kazetari batek, 2010-04-04an idazki bat aurkezten du: 'Crónicas de Bilbao y Vizcaya. El pueblo elegido. Los mitos sobre los orígenes de los vascos nacieron de una interpretación muy particular e interesada de la historia para la defensa de sus fueros y privilegios'. Foruak ohituraz euskal herritarrek, eta beste toki batzuetako biztanleek ere betetzen zituzten erabakiak ziren. Herritarrek onartuta zeuden eta historiaren une baten erakunde batek idatziz jarri zituen. Toki askotan bertan behera utzi zituzten, baina Euskalerrian ez. Espainiako konstituzioa baino gizaldi batzuk lehenago demokrazia mota bat zen. Eta nahiko sakona garai haietarako, adierazten zuten. Geroago joan ziren mito eta legendetara, oi-

nari historiko bat jartzeko legedi honi. Eta Madrileko gobernu desberdinek eta ingurukoek, foruen kontra idazten zutelako, ezagunak ziren historilari edo antzekoak aitatu behar zituzten. Gaur Europako nazioak diren guztiek dituzte horrelako legendak Espaniatik hasita.

Badago beste jaun bat 'egiaren ondokoa' den bidetik sarritan jarraitzen duena. J. M. Ruiz Soroa da, eta 'El Correo', bere Donostiko lehengusua den 'El Diario Vasco' eta 'El País' egunkarian ere idazten duena. Jaun hau itxaso eta ontzi eta portuen lege kontuetan aditua da. Bere lan bi aipatu behar ditut. Biak 'El Diario Vasco' egunkarian daude. Seguruenik 'El Correo...' egunkarian ere atarako zituzten. Bat 'La intrahistoria de la guerra civil', 2016-12-24 egunean. 'A partir de 1937, los soldados republicanos capturados eran reciclados de acuerdo al siguiente plan del Estado Mayor: los que se juzgaban como “adictos al Movimiento Nacional” con una A, mientras los considerados “netamente adversarios del mismo” lo eran con una B y los sospechosos de delitos con C o D. Pues bien, lo asombroso es que alrededor del 50% de todos los prisioneros -más aún en el frente Norte- fueron clasificados A de inmediato por los servicios militares franquistas (como adictos al Movimiento) y, en consecuencia, fueron incorporados directamente y sin transición a las filas del ejército “nacional” y enviados a combatir en frentes tranquilos y mezclados con otros reclutas. Sólo un 30% de los capturados fueron destinados a batallones de trabajadores de carácter punitivo'. Jaun honentzat Ebrokeo gudaldia, antza 'frente tranquilo' izan zen.

Eta Genebako nazioarteko itunaren arabera, preso harrapatutako gudariak ezin dira frontera bialdu. Orain 16 urte, 2003an Javier Rodrigo jaunak liburu bat argitaratu zuen: 'Los campos de concentración franquistas' Madrilén. Santoñan itun entzute-tsuaren ondoren italiarren esku egon behar zutenak, frankotarren menpean jarri zituen Francok eta bere jeneralek, eta

Ebroko gudaldira hainbat eta hainbat bidali zituzten. Nik ezagutu nuen bat hortxe bertan tifusa harrapatu eta konortea galduta bazter baten bertan behera utzi zutena. Bere lagun bik bazekiten han inguruetan euren beste lagun bat, Azpiazu kapitaina zebilela. Deitu zioten, etorri zen eta sendagile baten esku utzi zuen eta bizirik atara zen. Beste bat Santoñatik hara bidali zuten. Zaragozako frontean ofizialak deitu zion eta paper bat erakutsi zion: X X Murua zuen izena, eta heriotz zigorra berarentzat jartzen zuen. Frankotar ofizialak bere aurrean papera txikitu zuen. Gerra ondoren jaiotako bere semeak kontatu zidan orain dela gutxi.

Baina abokatu eta kazetari honek, neurri guztiak hautsi ziotuen beste lantxo baten. 2018-01-4an 'Diario V.' horretan dago. 'Hay una cripta en Bilbao' da izenburua. 'Cabo Quilates' eta 'Altuna Mendi' ontzietan preso zeuden frankotar batzuk, apaiz eta praile batzuekin batera, sarraskia egin zuen 'el batallón de milicianos socialistas número 7 de la UGT (el batallón Asturias) enviados allí para proteger a los encarcelados, pero que se sumó con entusiasmo a la matanza y al pillaje'. 1936ko irailaren 25an frankotarren abioiek Bilbo eraso zuten. CNT sindikatokoak ere baziren Bilbon. Hauek denak kontrolatzea ez zen lan erraza, batez ere bonbardaketa baten ondoren. Eta horixe gertatu zen. Bonbardaketak beldur ikaragarria sortzen zuen, eta armaren bat zutenen artean, mendekua hartzera bultzatzen zituen. Eta sindakato horietako kideek bazituzten armak. Munduko bigarren gerran egin ziren sarraskien saioak Espainiako gerran frogatu ziren. Coventry bonbardatu zuten naziek eta Britainia.

A. Monterok, geroago gotzain izan zenak honela kontatzen du hau bere doktore tesia izan zen liburuan: 'El 25 de septiembre la aviación nacional había realizado una incursión sobre Bilbao, que sembró el pánico y provocó las iras entre las turbas más incontroladas'. Bonbardaketa bat uskeria baten parean jartzen du. (Historia de la persecución religiosa en Espa-



ña, 1936-1939, 357. orrial.). Frankismoaren garaian idatzi zuen tesi hau, eta Euskalerrinari buruz, datu garrantzitsuak 'ahaztuta' utzi zituen. Adibidez frankotarrek afusilatu zituzten euskal apaizak, eta Donostian hil zuten Aldanondo apaiza ere, anarkistek hil zutena eta tatarrez gorpua eramane Trintxerpeko kaleetan). Ruiz Soroa jaunak 1937-01-4an gertatu zen erasoaldia 'El Carmelo' eta Larrinagako kartzeletan ere, kripta horren barruan sartzen du. Derioko kripta horretan errespetuz ekintza basati hauetan erailduak hobiratuta daude. Ez dakit denak ala gehienak, baina bai era errespetagarri baten. Eta ez errepide ertzetan edo kanposantu bazterretan edo palatuetan, Nafarroan gertatu zen bezala.

Hori ez du inon aitatzten Ruiz Soroa jaunak. Ezta Badajozko zezen plazan frankotarren mutilek burututakoa. Zezen plazan sartu ala banan banan errepublikar presoak, metrailetaz hiltzen zituzten. Jarlekuetan jarrita zegoen, eta 1.500etik 4.000ra izan zen kopurua. Yagüe generalak azken kopurua eman zion estatubatuar kazetari bati. Gero kamioietan jaurti gorpuek eta lur ireki batera eramane hobiratzeko. Bilboko bi ontzietara itzulita eta kartzela bietara, ingurugiroa 'ahaztu' egin zaio. Eta hemen ere bete betean 'egiaren ondoko' bidea jarraitzen du. Ez du esaten inondik inora Bilbon frankotarren abioien bonbardaketa bat egon zela herritar xumeak erailtzeko. Eta ez du aitatzten ezertarako Euskadi Buru Batzarrean Ajuriagerrak sortu zuen iskanbila bere adostasun eza iragarritz, eta Monzonen jokabidea gaitzetsiz. Utzi EBBa eta frontera joateko mehatxua jarri zuen mahai gainean, dena bertan behera utzita. Orduan gertakizun hauen ikuspuntua aldatzen da. Inolaz ere ez dute onartzen orduko E. Jaurlaritzako arduradunek ekintza hori. Eta agirian huts horren ardura bere gain hartu zuen Agirrek. Eta Urkulluk ere agirian esan zuen gizaki horiek ere bigabekeriz hil zituztela eta errespetuzko oroimena merezi dutela. Puntu bi hauek aipatzen ditu idazki horretan Ruiz Soroa jaunak. Ez bonbardaketarik ez beste ezer. Gertatu zena

izan zen E. Jaurlaritzak ez zuela inolako tresnarik basatikeri horiek ekiditzeko. Jaun honek ez du irakurri George L. Steer kazetariaren liburua 'El árbol de Guernica', 8. kapituluua. Eta are gutxiago, Miguel Pelay Orozkoren 'Juan Ajuriaguerra. Su vida, su obra su muerte', 1987an argitaratuta dagoen kapitulu bat, iturri desberdinak erabiliz: 'El asalto a las cárceles'. Hau ere 8. da. Hor agertzen dira bertan lekuko izan zirenen testigantza. Horietan bietan bai, badagola egia osoa, eta ez zoriturrez Ruiz Soroaren idazkian. Horrek agirian uzten duena da Ruiz Soroak beste helburu batzuk zituela kriptatuta hori aitatzean, ez errespetuzko oroimen bat gogoratzea.

Euskal Herriko kazetariren bat edo bestek ere laprastadaren bat izan dute. Esaterako Lídice (Liditxe) oroitu izan dute. Eta beharrezkoa da oroimen hori han nazien gobernuko poliziak, ez SSkoek kasu honetan behintzat, burutu zuten basatikeria ez errepikatzeke inoiz eta inon. Naziek Heydrich jarri zuten Txekian gobernu buru euren babespean jarritako lurraldean. Bertako gerrilari batzuk prestatu Britaina Handian eta jauzigailuen bitartez bota zituzten Txekian, Heydrich hori garbitzeko. Horrela sartu Txekian eta bortxakeri eraso burutu zuten. Heydrich zauritu zuten, baina ez zen hil kotxean. Septizemiak hil zuen handik zortzi egunera. Erasotzaile bat edo bi herri horretakoa ziren eta alemaniar poliziak inguratu herri hori, tiroka erasotu, eta gero sua eman zioten. Antzeko zerbait egin zuten SS taldekoek Frantziako Oradour-sur-Glane herrian. Hau dena egia da eta gertatu zen. Baina Errusia eta Txekiako gudariek ere antzekoak egin zituzten alemaniarrekin, eta ez dira aitutzen.

Gerra amaitu eta atoan Benes (Benex) presidenteak sudesteak Txekiatik kanpora jaurti zituen, goian zerua, eta behean lurra zutela. Sudete hauek alemaniarrek ziren, eta Txekiako Bohemia eta Moravian bizi ziren gizaldi batzuk lehenago joanda hara etorkin bezala. Prerau herrian sarraski ikaragarri bat egin zuten ihesi zijoazen sudeteen artean. Multzo bat ige-

rileku baten sartu eta metrailetaz hil zuten. Beste batzuk harrapatu eta argi posteetan urkatu zituzten adibidez. Austriara bidean ere hainbat hil zituzten. Badaude 'Brunner Todesmarsch' historilariak deitzen dutena, 'Massaker von Aussig', 'Massaker von Glaserhau' eta 'Massaker von Postelberg'. Horrik sortu ziren Alemaniak jarri zituen oztopoak Txekiak Europako Merkatu Batuan sartzea eskatu zuenean. Naziak Coventry bonbardatu zuten su zirien bitartez. Ez zen armagintzako hiria edo gudaroste kokapena. Baina Britainia Handiko almirante batek gudaren azken urtean Dresde bonbardatzea erabaki zuen. Hor ere ez zegoen arma fabrikarik ez gudaroste kokapenik. Emaitza 30.000 hildako izan ziren. Mendeku sumo handia ematen diote alde bietako historilariak. Estatubatuar gudarosteak My Lai, Vietnamgo herrian egin zuena hauen antzeko bonbardaketa izan zen. Baina ez ditu inork eraman nazioarteko tribunalera.

Grijelmo jaunak kazetari eta hizkuntzalari denak, gaztelera-zko 'posverdad' hitzaren arlo semantikoa ere zehazten du: 'Posto pos- pueden preceder a un sustantivo “posguerra”, a un adjetivo “posbélico”, o a un verbo “posponer” [...] Gaztelera adierazi pixka bat desberdinak ematen ditu pos- horrek. 'Sin embargo, “verdad” no es una acción, ni un tiempo histórico, ni un movimiento cultural'. [...] Pero además de esa duda gramatical, podemos preguntarnos sobre todo si “posverdad” no formará parte de lo que la propia palabra denuncia, si no estará desplazando a vocablos más indignantes, como “mentira”, “estafa”, “bulo”, “falsedad”...El engaño siempre existió, sí, pero antes todos decían luchar contra él. Ahora, por el contrario, se empieza a cultivar como una buena técnica profesional el revoltijo de trampas de lenguaje basadas en el sensacionalismo, los sobrentendidos, la insinuación, la alusión, la presuposición, los eufemismos. Y si se trata de definir ese paquete de “posverdad” suena realmente a broma. Porque puede que estemos lla-

mando “era de la posverdad” a la era de la manipulación'. (El País, Ideas 24-12-2016).

Azken baten jokabide honek lortu nahi duena da, pertsonak, eta gizarte kopuru handi bat manejatzea, agintaritzza edo indar ekonomiko edo bestelako indar batek nahi duenaren aldera eramanez.

Metodo hau erabili zuten batzuk EEBBetako azken hauteskundeetan. 'Quién puede criticar a 62 millones de norteamericanos por haber votado a Donald Trump, si el Papa pidió a los católicos que lo hicieran para que “América sea fuerte...”'. David Alandete jaunak 'El País' egunkarian kontatzen eta argitzen duen bezala guzur hutsak dira hori eta zabaldu zituzten beste guzur batzuk. Baina EEBBtan Facebook tresnaren bitartez zabaldu ziren. 'Son todos bulos, pero a millones de personas les llegaron con apariencia de hechos a través de Facebook, una plataforma que el 60% de norteamericanos empleó para informarse durante la campaña, según el 'Pew Research Center'. Nola jokatu guzurren ereintza honen aurrean?. 'En los primeros momentos de estupor tras la victoria de Trump, el 8 de noviembre, muchos dedos apuntaron a Facebook, donde la jerarquía informativa no la dicta un editor, con estudios y trayectoria periodística, sino un algoritmo que ante todo premia la interacción del lector. Y como ha quedado claro en estas elecciones, a muchos lectores les da igual que una información sea verdadera o falsa para leerla, valorarla y, sobre todo, compartirla, convirtiéndola en un fenómeno viral'.[...] Alarmados, varios directivos preguntaron en la noche electoral si la automatización completa de selección de noticias le había dado la presidencia a Trump. Fue en pequeñas localidades de Florida, Ohio o Pensilvania donde el republicano logró ganar, no en grandes ciudades como Nueva York o Los Ángeles, donde las cadenas de televisión y las portadas de los diarios aún ayudan a discernir qué es cierto y qué no'. (El País, Ideas, 27-11-

2016). Kazetari profesional batek baino gehiago balio du algoritmo batek! Algoritmoa, informatika programa bat da. Ezartzen da buru den ordenagailu baten, eta jartzen zaizkio hitz batzuk berriak aukeratzeko. Programa horien arabera aukeratzeko dituzten berriak, ez benetan duten garrantziaren arabera. Eta gero zabaldu egiten ditu.

Iruzur honetan ez erortzeko Ramón Zallo jaunak 'Deia' egunkarian lantxo interesgarri bat idatzi zuen. Amaieran hitz argi hauek jarri zituen: 'Como corolario, cabe apuntar que achicar el campo de la posverdad requiere, por un lado ensanchar el campo del saber, de la educación y de la maduración de la opinión pública; y por otro, poner el sistema de comunicación y su calidad en el corazón de la gestión de las sociedades posindustriales'. (Deia, 2017-03-02).

Hemen iturri desberdinak aitatu ditut. Baina badago printzipio bat justiziak eskatzen duena, eta arrazoidun gizakiak bete behar duena: bakoitzari berea, beti. Sinestedunek, Jainkoaren legea, eransten dute. 'El País' egunkariak batzuetan Jainkoa gurtzen du eta beste askotan, deabrua. Ez da inolaz ere Jainkoaren hitza idazten duena. Eta era bikainean adierazten du, batez ere azken urteotan, Josep Pla idazlearen luman jartzen diren hitzak: 'Eskubiko espainiar abertzale baten antzik gehiena duena, ezkerreko espainiar abertzale bat da'. Biak desberdinaren arbuiatzaileak dira. Biek konstituzioa euren bentajarako erabili dute; eta komeni izan zaienean, beste lege batzuekin bardin egin dute. Besteei ezartzen dien arrazista kutsua, eurek bai badute. Biak ustelkerietan zikinduta daude, biek justizia euren zerbitzuan erabiltzen dute. Eta biek ez dute arazorik guzurrak gizarteari adierazteko, arpegia aldatu gabe. Joko horretan ez dira sartzen herritar xumeak, gizartearen goragoko mailan daudenak baino.

Azken adibidea Zoido jaunarena da: parlamentuan denon aurrean esan du, hauteskunde saioan egon ziren zaurituak eta

estaduko poliziaren egurketak, katalandarren errua izan zela eta poliziak neurritz jokatu zuela. Eta urtarilaren azken hamar egunetan idea hau zabaldu dute: 'inmunidad no significa impunidad'. Lege gizon zindoen iritziz, 155. konstituzio artikulua, legea urratuz erabili dute. Puigdemontentzar dira hitz hauek matxinada bat antolatu duela ezarriz bere gain. 'Impunidad' edo zigorgabetasun horrek beste batzuk babesten ditu, egunkariak kontatzen dutenaren arabera. Espainia osoak, Europak eta mundu osoak ikusi zituen irudiak telebistetan eta han egurra nork banatu zuen, eta sendagileek, egon ziren zaurituen kopurua egiaztatu. 'El Diario Vasco' egunkariak idazten du 893 zauritu egon zirela. Eta gazte batek begi bat galdu zuela pelota batek jota. Zoido jaunak agintzen zituen indar horiek. Eta aurpegia izan zuen Madrilako parlamentuan esateko: 'han actuado con “respeto escrupuloso, profesionalidad exquisita y proporcionalidad”'. (D. Vasco, 11-10-2017). Gainera 22-01-2018an gaueko 10'30tan EITB bat kateak eman zuen 'Catalunya: 1-O' programa. Eta beste telebista batzuk ere emango zuten programa hori. Hor agertzen diren irudi eta testigantzak argi eta garbi daude. Espainiako poliziaren bortxakeria ikusi eta entzun egiten da. Beraz ministroak eta kazetari batzuk kontatu dutena ez da egiaren ondokoa. guzur biribila baino, eta era berean gizarte osoa lelotzat hartzea da. Gauza bakoitzak bere izena du, eta izen horrekin deitu behar zaio.

'Egiaren ondoko' landare hau baztar askotara zabaldu da bermio bedarra bezala. Euskal Herrian ere behar baino gehiago zabaldu da. Orain dela urte asko herri baten 'Cervantes' plazaren izena aldatu zuten, 'Orixe' izena jartzeko. Oso aurrerakoia ei zen ekintza hori. Oraintsu Durangoko udalean 'Fray Jaun de Zumárraga' izena kale eta institutuari kentzea erabaki dute. PSEko zinegotziak aurkezpen hau egin zuen. Arrazoia, guzurra den aurkezpen bat: 'un inquisidor activo en la caza de brujas, una denominación que se suele utilizar

para aquellas mujeres sabias y liberadas que se atreven a desafiar a las convenciones'. Eta guzurra biribiltzeko hau erantsen du: 'un acto de desagravio necesario y obligado hacia las mujeres perseguidas en todas épocas'. Onarpena eman zioten hurrengo alderdiek: EAJ, EH Bildu, Herriaren Eskubidea (SQ-2D), eta PSEk. Nire harridurarako PPK abstentzioa erabaki zuen. (Deia, 2018-01-18). Zinegotzi horiek historia eta J. de Zumárragaren biografia berri bat asmatu dute, baina berdin da. Baditugu komunikabide desberdinetan kulturaren eta euskal kulturaren ezagupidearen adibide argiak. Sarritan entzun eta irakurri izan dugu, 'echar en falta' euskaraz 'faltan bota' dela. Azkue ez zen aurrerakoia, beste batzuk bezala, baina OEHan datorren arabera, eta A. Irigoyenek argitaratu zuenetik HAUTETSI da euskal hitza: 'conocer lo que a uno le falta. Echar en falta' (III tomoa, 456. orrial.) Horregatik guztiz harira datoz gorago aitaturako R. Zalloren hitzak.

*J. M. Etxebarria L.*